

12-05-2019

Parque Natural de los Collados del Asón-tik ibiliko gara. Ezaguna da glazio-karstiko modelaketa izateagatik. iiGoazen ba!!

Gailurra egoitzatik A-8 errepidea hartuko dugu, 173 irteraino (Colindres-Burgos-Logroño). Hango biribilgunean N-629 Ramalesera hartuko dugu. Ramalesen eskumatara joko dugu, Arredondora (CA-261). Arredondon sartu bezain laster eskuman dagoen CA-265 Asonera hartuko dugu.

Ason pasata, eskuman, **Cailagua** (70 metroko ur-jauzia, Ason ibaiaren iturburua) ikusiko dugu. Begiratokitik atsedealdia labur batean argazki pare bat ateratuko ditugu. Berehala berriro autoan sartuko gara PN Collados del Ason parkinera ailegatzeko. Han kotxeak utziko ditugu.

Aparkalekutik bertatik legarrezko pista batetik ordu erdi edo ibiliko gara, Alto de la Posadia-ra. Han bertan bai Poljé de Brenavinto bai seinale-tantai bat ikusi ahalko ditugu. Poljé formazio exokarstika handi bat da eta geroago zeharkatu ahal izango gara. Tantaian markatuta dagoen PR-S77 (Vuelta al Colina) hemendik aurrera eta Colinara ailegatu arte jarraituko dugu.

PR-S77an sartuta, mendebalderantz pagadi batetik ibiliko gara, Cabaña de Concinchao-ra. Han eta hegaletik gora, faja batetik, mendebalderantz segituko gara. Bidexka ez da estua izango, baina kontu handiz ibili beharko gara jaisten baldin bagara jauzia handia izango delako.

Cañada de Moncreso zeharkatuko dugu eta amaieran harrietatik gora egingo dugu, hegoalderantz. Moncreso pagaditik ertzetik ibiliko gara. Gero iparralderantz abiatuko gara **Colina** tontorrara ailegatu arte (**1441m**).

Tontorra lortu eta gero, egin dugun bidea desegingo dugu GR-74rekin topo egin arte. Bidezidor hau hartuta, ekialderantz hegaletik suabe-suabe jaitsiko gara berriro Cabaña de Concinchao-ra

ailegatzeko.

Hemendik bertatik ibilbideko bigarren zatia hasiko da: PR-S77 metro gutzi batzuk jarraituz berehala utziko dugu fajaren behera dagoen bidexka hartzeko, eta berriro mendebalderantz abiatuko gara, bigarren kanalera heltzeko: **Canalahonda**.

Canalahondan hormen erdian ibiliko gara eta bere 800 metroko bidea zeharkatu dugu, Collado de los Lobos-era. Han markatuta dagoen bidexka ekialderantz segituko dugu.

Amaitzeko, beti ekialderantz, beste legarrezko pista batetik ibiliko gara, poljéan sartzeko. Han eta **poljé** egoeraren arabera ibiliko ala saltoka jarraituko dugu, errekek eta putzuak saihesteko.

Blai eginda ala bustitu gabe, (batek daki!), Alto de la Posadia-ra ailegatuko gara hasieran hartu dugun pista hartzeko eta kotxeetara ailegatzeko.

DATU TEKNIKOAK

Luzera: **19km**

Metatutako Desnibela: +/- **1000 metroak**

Iraupenaren aurreikuspena: **6-7 ordu (atseden barik)**

DESKARGATZEKO TRACKA

IBILBIDEA MAPAN

Mapan bidexka bat baino gehiago daude. Bidea egiteko emango dizuegun zenbakiaren ordena jarraitu beharko duzue.

- 1-2-7-8-9-2 (Colina-ra joan-etorria) eta gero 2-6-5-4-3-2-1 (Canalahonda-ra joan-etorria)

IBILBIDEAREN INFORMAZIOA (egin klika irakurtzeko)

- Poljé: zer da?. Poljé de Brenavinto
- Glaziar modelaketa, hegaztiak. .. Asonen (bideo erraza)
- [METEO IRAGARPENA IKUSI](#)

Compártelo:

Click to share on Twitter (Opens in new window)

Click to share on Facebook (Opens in new window)

Click to share on Google+ (Opens in new window)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela

Luzera

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

Gailurra egoitzan, 7:45etan

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Parque Natural de los Collados del Ason-eko aparkalekuan, goizeko 10etan

Irteerarako izena emateko azken eguna

09/05/2019

Jakin beharreko kontu teknikoak

Ibilbide osoan zehar lurra karstikotik ibiliko gara. Ibiltzea zaia izan daiteke. Bustita egonez gero laprast egitea erraza izango da / Garrantzitsua da mapa irakurtzen jakitea

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Bidea ez da zaila izango baina bai dela luzea. Beraz garrantzitsua da sasoian egotea.

Material tekniko beharrezkoa

Mendiko botak / Makilak / Ura: 1.5-2 litroak / Zira (Txubaskeroa) / Txanoa / Eguzkietako betaurrekoak eta krema / Aldatzeko arropa / Txankletak poljé zeharkatzeko (aukerako)

Bestelako oharrak

Bidean ez dago iturririk. Hasierako pistan Fuentebezón iturburuarekin topo egingo dugu (tratatu barik ura). / Garrantzitsua da bidexkatik kanpo ez ibiltzea leize eta arrail asko baitaude / Gune batzuetan orientazioa galtzea erraza izago da. Ibilbide osoan kontu handiz denok elkarrekin ibiliko gara / Lainoa izanez gero, bakarrik bigarren zatia (Canalahonda) egingo dugu.

Argibide gehigarako

Beatriz (beatrizcaboarrobahotmail_punto_com) eta Gailurra egoitzan maitzaren 9an, 20:00-tik 21:00-era

